

AFRIKARRA, EMAKUMEA

Ngozi Okongo-Iweala nigeriarra, Munduko Merkataritza Erakundeko buru

 **EKONOMIA** / Ainara Lertxundi


Emakumea eta afrikarra. Ngozi Okonjo-Iweala nigeriarra Munduko Merkataritza Erakundearen (MME edo ingelesezko sigletan, WTO) zuzendari izendatu zuten otsailean. Lehen aldiz emakume bat hautatu dute kargu horretarako. 164 herrialdek izendapenaren alde bozkatu zuten, Ameriketako Estatu Batuak barne. Bost hilabete lehenago Okonjo-Iweala izendatzearen aurka egin zuen Washingtonek, lehian zegoen beste hautagaia- ren alde (Hego Koreako Yoo Myung-hee) eginez. Baina Etxe Zuriko gobernu aldaketaren ondoren, oniritzia eman zion nazionalitate estatubatuarra eta nigeriarra duen emakumeari.

«Nigan jarritako konfiantza eskertzen dut. Batetik, nire identitatea –emakumea eta afrikarra– eta, bestetik, nire esperientzia kontuan hartu dute eta hori eskertzekoa da», adierazi zuen 66 urteko ekonomialariak.

Munduko Merkataritza Erakundeak erronkei aurre egiteko gaitasuna izan dezan beharrezkoak dituen erreformak egingo dituela iragarri zuen. «Etorkizunera egokitu behar dugu. Duela hamarkada bat baino gehiago geldirik dauden merkataritza negoziazioak berreskuratu behar ditugu, baita pandemia dela-eta airean geldirik dauden trukeak ere, eta erakundearen arbitro izaera aitortzea eta kontuan hartzea. Pandemiak eragin duen hondamenditik azkar eta erabat atera nahi badugu, erakunde indartsu bat beharrezkoa dugu», nabarmendu zuen.

«Esku artean ditugun desafioak handiak eta askotarikoak dira, baina ez dira ezinezkoak. Itxaropena dut, batez ere elkarrekin eta gardentasunez lan egiten badugu. Tentsio politikoa

Ngozi Okonjo-Iweala nigeriarrak Munduko Merkataritza Erakundeari buelta eman nahi dio. «Ezin du orain artekoa izaten jarraitu. Gure ikuspegia aldatu behar dugu. Oso erakunde garrantzitsua dugu esku artean eta ezin dugu hiltorian utzi», esan du erakundearen zuzendari orokor kargua hartu zuen lehenengo egunean. Bere lehentasuna pandemiaren kontrako borroka da.



Ngozi Okonjo-Iweala kargua hartu zuen egunean.

Fabrice COFFRINI | AFP

gutxitu behar dugu. Erakunde dinamikoa lortu behar dugu, indartsua. Merkataritza baliatu behar dugu garapen jasagarria bermatzeko», gaineratu zuen.

FINANTZA ETA ATZERRI MINISTROA

Okonjo-Iweala 1954ko ekainaren 13an jaio zen Ogwashi Uku herrian. Niger ibaiaren deltan dago, Nigeriako hegoaldean. Bertako herritar gehienak igbo etniakoak dira.

AEBetako unibertsitate eta eskola hoberenetan ikasi zuen (Harvardeko Unibertsitatean cum laude kalifikazioarekin lizentziatu zen Ekonomian 1976an, eta 1981ean doktoretza lortu zuen Massachusettseko Teknologia Institutuan). 2019tik nazionalitate estatubatuarra ere badu. Yaleko eta Pennsylvaniako unibertsitateek ohorezko tituluak eman dizkiote, baita Dublineko Trinity Collegek ere.

Merkatuen eta ekonomiaren alorrean eskarmentu handiko emakumea da, baita nazioarteko harremanetan ere. 1982an lanean hasi zen Munduko Bankuan. 25 urtez aritu zen bertan ardura desberdinak garatuz. 2007 eta 2011 bitartean, zuzendari gerentea izan zen, hots, erakundeko bigarrena.

Politikan ere buru-belarri ari- tu da. Nigeriako Finantza ministroa izan zen, 2003tik 2006ra

eta 2011tik 2015era. Ardura hori betetzen zuen lehenengo emakumea izan zen. Gastu publikoari eusteko asmo handiko erreforma proiektu bati ekin zion. Nigeriaren kanpoko zorra arintzea lortu zuen, Pariseko Kluba- rekin aurrekaririk gabeko akordio bat lortu ostean.

Gardentasuna eta ustelkeria- ren kontrako borroka izan ziren bere ministerioaren ardatzak. Hori jasotzen zuen liburu bat ere idatzi zuen “Fighting Corruption Is Dangerous”. Ustelkeria- riaren kontra egitea zein arris- kutsua izan daitekeen azaltzen du. Finantza ministro gisa ikasi- takoa abiapuntutzat hartuta, gomendio praktikoak eskain- tzen ditu eta ustelkeriaren kon- trako borrokan topatu zituen oztopoak aipatzen ditu. Garape- nerako erabili beharko lirateke- en funtsak besterentzeko antze- man zituen bide eta metodo desberdinen inguruan ere haus- narketa egiten du liburuan.

2012an 83 urteko ama bahitu zuten ministro gisa bultzatu nahi zituen erreformak bertan behera utz zituzan. Gasolioaren dirulaguntzak baliatuz iruzu- rrak ekiditeko neurri zorrotza- goak sustatu nahi zituen, izan ere, herrialdearen aurrekontua- ren zati handi bat horretan gal- du egiten baitzen. Bahitzaileek kargua uztea eta Nigeriatik alde egitea exijitu zioten. Baina, Okonjo-Iwealak ez zuen dimi- sioa aurkeztu eta bere amak ihes egitea lortu zuen.

Nazioarteko bileretara oihal- biribilkiak eramane ohi zituen soinean Nigerian egindako oihal horien kalitatearen eta Txinan prezio erdiaren trukean egindako kopien artean zegoen aldea erakusteko.

2015etik Twitterren aholkula- ri lanak egin ditu. Standard Chartered entitate finantzario- an ere lan egin du eta Txertoe-

tarako Aliantzaren presidentea izan da. Koronabirusaren kontrako txertoak garapen bidean dauden herrialdeetara banatzeko lan egiten du Aliantzak.

Ameriketako Estatu Batuetako Zientzien eta Arteen Akademiaren kide da.

“Time”, “Forbes” eta “Newsweek” aldizkariak mundu mailan eragin gehien duten pertsonen zerrendan Okonjo-Iweala aipatzen dute.

Bere azken liburua, “Women and Leadership: Real Lives, Real Lessons”, Australiako lehen ministro ohia den Julia Gillardekin batera idatzi du. Biak politikan, ekonomian eta nazioarteko harremanetan eskarmentu handiko emakumeak dira. Norberaren esperientziaz baliatuta, generoak lidergoan duen eragina eta emakume liderrak nola ikusiak diren aztertzen dute.

Munduko Merkataritza Erakundearen eta aurretik egon zen GATTen ibilbideak batuz gero, 75 urteko historia egiten du. Denbora tarte honetan europar jatorriko sei zuzendari orokor eduki dituzte, Asiako bat, amerikar bat eta beste bat Ozeania-koa, baina orain arte ez zen zuzendari orokor afrikarrik egon. Okonjo-Iwealaren izendapena historikoa da bi arrazoiengatik: batetik, afrikarra delako eta, bestetik, emakumea delako.

ARRANTZAREN NEGOZIAZIOAK

Aditu batzuek bere agintaldia bultzagarria izango dela adierazi duten arren, beste batzuen aburuz, ezingo ditu gauzak errotik aldatu, erakundearen antolakuntzaren arabera erabakiak hartzeko herrialdeen arteko adostasuna beharrezkoa delako. Bere lehen zereginetarikoa bat alboko lau zuzendari hautatzea izango da. Agendan, arrantzaren dirulaguntzen gaineko negoziazioak bultzatzea dato-



Okonjo-Iweala MMEren egoitzara iristen eta bere lehen hitzaldia hasi aurretik astelehenean. Behean, saltzaile bat, haren izendapenaren berri ematen duten aleekin. Pius UTOMI EKPEI Fabrice COFFRINI | AFP

rrren ministro bilkuran amaitutzat eman ahal izateko. Baina ez da lan makala, une honetan gai honen inguruko elkarrizketak geldirik baitaude, ez aurrera ez atzera. Erakundearen eta Ame-

riketako Estatu Batuen arteko gatazkak desaktibatu nahi dituzte ere. Donald Trumpen administrazioak gogor jo zuen erakundearen kontra, gatazken konponbiderako mekanismoa blokeatu zuen. Merkataritzaren eremuan sor zitezkeen gatazkak konpontzeaz arduratzzen zen Helegite Organoa osatzen zuten epaile berriak aukeratzeari uko egin zion Trump presidente ohiak.

Astelehena izan zen MMEko zuzendari orokor berriaren lehen laneguna. Okonjo-Iweala goizean goiz iritsi zen egoitzara. Sarreran hainbat GKE-ek jarritako izotzeko eskultura bat (arrainak irudikatzen) inauguratu zuen Kolonbiako enbaxadore Santiago Willsekin. Arrantzaren sektoreari dagozkion dirulaguntzen negoziazio batzordearen presidentea da Wills. Esan bezala, negoziazio horiek geldirik daude uneotan. Bere agintaldiaren lehen-tasunak arrantzaren inguruko negoziazioak desblokeatzea eta egungo merkatuko arauak aldatzea eta pandemiaren kontrako borroka dira.

«Gehiegizko arrantzak, ontziteriaren gehiegizko gaitasunak eta legez kanpoko arran-

tzak iraunkortasunari kalte egiten diote. Horregatik, negoziazioak lehenbailehen amaitu behar ditugu», nabarmendu zuen modu telematikoa egin zuen lehenengo mintzaldian.

TXERTOEN BANAKETA ZUZENA

Txertoen banaketa zuzena bermatzea da bere lan ildoaren beste ardatz bat. «Erakundeak asko lagundu dezake pandemiaren konponbidean. Baliabide nahikorik ez duten herrialdeei lagundu diezaieke txertoak eskuratzen. Herrialde guztiek nahi dute herri guztietan txertoak jartzea, guztiok arriskutik kanpo egoteko modu bakarra mundu guztia txertatuta egotea da. Gure artean eztabaidatzen denbora galdu beharrean, sektore pribatuak zer egiten duen aztertu beharko genuke. Txertoak aldi berean hainbat herrialdetan ekoizteko lizentzia akordioak egin dituzte enpresek. AstraZenecak horixe bera egin du Indian», azaldu zuen.

Erakundeak bere sorrerako izaera berreskuratu behar duela gainera zuen: «Herrialdeei biztanleen bizi kalitatea hobetzen lagundu behar die. Enplegu duinak sortu behar dira, herritarren bizitzak hobetu behar ditugu. Pandemiak eragin digun krisi ekonomikotik ateratzeko merkataritzak badu zeregin garrantzitsua», nabarmendu zuen astelehenean.

MMEko ministroen hamabigarren gailurra azaroaren 29rako deituta dago Genevan. Iazko ekainean egitekoa zen Kazakhstanen baina koronabirusa dela-eta bertan behera utzi zuten. Horregatik, bilkuraren burua herrialde horretako Merkataritza eta Integrazio ministroa izango da, Bakhyt Sultanov.



Ustelkeriaren kontrako borroka izan zen bere lehentasuna Nigeriako Finantza ministro gisa. Bere esperientzia «Fighting Corruption Is Dangerous» liburuan jaso zuen

«Nigan jarritako konfiantza eskertzen dut. Batetik, nire identitatea –emakumea eta afrikarra izatea– eta, bestetik, nire esperientzia kontuan hartu dute, eta hori eskertzekoa da»